

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ORMIJANAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Zuhaizti lotearen enkantea

Ormijanako Administrazio Batzarrak gutun-azal itxien bidezko enkante publikorako deia egin du, OPko 643 mendiko zona markatuan, Chabola de los Presos izeneko dermioan, dagoen 1/2016 arte lotea (*Quercus ilex*) esleitzeko. Aprobetxamendua, arriskua bere gain hartuta egingo dena, 115 tona metrikotan ebaluatu da.

Ezingo dira bota aprobetxamenduaren eremuan pinturaz markatutako zuhaitzak.

Kontratuaren iraupena. Aprobetxamendua ateratzeko epea sei hilabetekoa izango da, kontratua esleitzen den egunetik aurrera.

Lizitazio oinarria: 4.147,00 euro gehi BEZa. Lizitatzailleek hobetu egin ahal izango dute eskaintza.

Fidantzak: lehiaketan parte hartu ahal izateko, lizitazioaz gainera, Ormijanako Administrazio Batzarraren izenean ehuneko 4ko behin-behineko bermea gordailutu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Behin betiko bermea lizitazio oinarriaren ehuneko 15 izango da eta esku-dirutan edo bankuko abal bidez eratu ahal izango da.

Ordaintzeko modua: ehuneko 50a behin betiko esleitzen denean, ehuneko 25a zura ateratzen hasi aurretik eta gainerako ehuneko 25a zuraren erdia atera denean.

Agiriak aztergai dauden lekua. Espedientea Erriberagoitiko udaletxean aztertu ahal izango da (Pobesen, Araba kaleko 1 zenbakian), 9: 00etatik 14: 00ak arte, eta Ormijanako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan. (Telefona: 673 83 57 80).

Eskaintzak aurkeztea. Eskaintzekin batera, NANaren kopia eta behin-behineko bermea edo hori ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu behar dira, gutun-azal itxian, hogeita sei eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

Eskaintzak aurkezteko lekua. Kontzeju aretoa edo Ormijanako Administrazio Batzarraren lehendakariaren etxea. (Telefona: 673 83 57 80).

Eskaintzak irekitzea. Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo larunbateko ordu batean. Enkantea esleitzen ez bada, bigarren enkante bat egingo da astebete geroago toki eta ordu berean, lehenengo enkantearen baldintza berdinekin.

11/2007 Foru Arauak eta Foru Aldundiak baimendutako baldintza teknikoen agiriek arautuko dituzte aprobetxamenduaren alderdi guztiak.

Ormijana, 2016ko martxoaren 12a

Lehendakari-errejidorea

SERGIO MURGA HERNÁNDEZ